

1. BEZEROEKIKO HARREMANA:

Gure bezeroekiko harremana automatizatua izango da, web-gune baten bitartez jarriko gara haiekin harremanetan, eta ondorioz automatizatutako zerbitzuak eskainiko ditugu. Webgunea, arropa kantitate zehatz bat biltzen dugunean eguneratuko dugu.

Gainera, sare sozialen bitartez helduko gara gure bezeroengana. Bertan, gure kontu propio baten bitartez, gure enpresari buruzko informazioa emango dugu. Are gehiago, egiten ditugun aldaketa zein deskontuen berri emateko aukera izango dugu bertatik.

“Influencer”-en kontuen bitartez ere gure enpresa ezagutzera emango dugu, beraz, haien *instagram*eko perfilak bitartekari lana egingo dute, eta bezeroekin harremana sendotuko dute.

Bukatzeko, mugikor zenbaki bat eta korreo bat ahalbidetuko dizkiegu, haien zalantzak argitu ditzaten. Gure enpresa eta sistema berritzailea izanda, zalantzak egongo direla dakigu, horregatik uste dugu garrantzitsua dela kontaktu zuzena izatea bezeroekin.



